



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



Asteartea
2008-04-01

VIURTEA 1396.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Mendizaleak maldan gora Aizkardi mendi ibilaldiaren lehen zatian, Uliko kontrol postuaren bidean. N.L.

AIZKARDI ELKARTEAREN IBIALDI JENDETSUENA IZAN DA AURTENGOA

VILLABONA 40. edizioa izan da eta guztira 1.043 mendizalek hartu zuten parte ibilaldi luzean eta motzean; 892k lortu zuten amaitzea 4

Altuna I. Master Patxaran Baines Txapelketatik at geratu da

AMEZKETA Sarasua asteasuarrak, berriz, bere azken partida jokatu zuen profesional mailan 6

JOSE MANUEL LULUAGA TOLOSA CF-REN ENTRENATZAILEA

«Garrantzitsua litzateke Berazubin giro polita dagoela nabaritzea»

TOLOSA Luluaga izendatu dute Tolosa CFren entrenatzailea; «gogotsu» dagoela azaldu du 3

Aurrerakoak «gustura» asteburuko berdinketarekin,





- **Apirilak 18.** 22:30ean *Persepolis* izango da ikusgai.
- **Apirilak 19.** 17:00etan *Persepolis* izango da ikusgai. 20:00etan eta 22:30ean berriz, *Oro negro*.
- **Apirilak 20.** 17:00etan *Horton* eskainiko dute. 19:30 etako eta 22:00etako saioan berriz, *La guerra de Charlie Wilson* izango da ikusgai.
- **Apirilak 21.** 20:30ean, *La guerra de Charlie Wilson* izango da ikusgai.
- **Apirilak 24.** 19:15ean eta 21:45ean, *Los pajaros* eskainiko dute.
- **Apirilak 25.** 22:30ean *Los pajaros* izango da ikusgai.
- **Apirilak 27.** 17:00etan, *Mi monstruo y yo* izango da ikusgai. 19:30ean eta 22:00etan berriz, *En un mundo libre*.
- **Apirilak 28.** 20:30ean izango da ikusgai *En un mundo libre*.

Besterik

- **Apirilak 2.** Haur liburuaren eguna. Erakusketa, ipuin kontaketa, pirluleta banaketa... Errota Haur Liburutegian.
- **Apirilak 5.** Kea ahots taldea. Javier Bello Portu-ren abesbatzen-tzako lanen bildumarekin argitaratutako CD-aren aurkezpen kontzertua. Santa klara komentuan, 20:15ean.
- **Apirilak 10.** TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK antolatutako mahai-ingurua. 19:30ean, udaletxeko batzar aretoan.
- **Apirilaren 11 bitartean.** Memoria historikoa berreskuratzeko bulegoa irekita egongo da (Tolosa 1936-45). Herritarrei arreta emateko bulegoa biktimen eta senitartekoen informaziorako. Aranburu Jauregian. Deitu 943 69 74 62ra.
- **Apirilak 19.** Dantzari Txiki Egun. Udaaberi dantza taldeak antolatuta.
- **Apirilak 23.** Ipuin kontaketa Errota Haur Liburutegian. 3-6 urte bitarteko haurrentzat. 18:00etan hasita.
- **Apirilak 25, 26 eta 27an.** Gipuzkoa Encounter II. Informatika zaleen arteko bilkura, Usabal kiroldegian.

Dantzari Txiki eguna, Gipuzkoa Encounter eta Noa abeslariaren emanaldia izango dira besteak beste hilabete honetan zehar. HITZA

Punta-puntako musikariak eta zine egitarau zabala hilabete osoan zehar

Kultura » 'Mundua Tolosan' zikloaren baitan, Noa izango da hilaren 11n, Leidoren; dagoeneko sarrerak agortuta daude.

ESTI EZEIZA

Udaberriaren bete-betean gauden honetan, gaur emango diogu hasiera apirilari. Aste Santuko oporraldiaren zurrumbiltoa igaro ondoren, normaltasunera igaro da dagoeneko jende guztia. Baina lana eta ikasketez gain gauza gehiago daudelako, hainbat ekitaldi eta jarduerak izango dira hilabete honetan zehar.

Aranburu jauregia

■ **Apirilaren 5a bitartean.** Txetxo Gaztañagaren erakusketa izango da ikusgai.

- **Apirilaren 4tik maiatzaren 10era.** Angel Arberen lanak.
- **Apirilaren 28tik maiatzaren 10era.** *Artea oinez 08* erakusketa izango da, Nafarroa oinez 08 antolatuta.

Kultur Etxea

- **Apirilaren 6a bitartean.** Galtzaundi elkarteak antolatutako euskarazko komikien erakusketa. 19:00etatik 20:00etara.
- **Apirilak 7.** Lizardi kultur elkarteak antolatutako hitzaldiak. Mikel Sorrauren: 1200eko konkista. 19:30ean.
- **Apirilaren 14tik 20ra.** Tolosa Naturaldia jardunaldiak.
- **Apirilak 21.** Odol-emaileen hileroko odol-ateratzea, 18:00etan.
- **Apirilak 21.** Lizardi kultur elkarteak antolatutako hitzaldiak. Aitzol Altuna: Nafar estatuaen sorrera. 19:30ean.

- **Apirilaren 23an.** Eskualdeko komunikabideek antolatutako mahai-ingurua. Gaia: AHT.
- **Apirilaren 28an.** Lizardi kultur elkarteak antolatutako hitzaldiak. Aitzol Altuna: Euskararen desagerpena. 19:30ean.

Leidor aretoa

- **Apirilak 4.** Soledad Ruz. Flamenko ikuskizuna izango da, 20:30ean hasita.
- **Apirilak 11.** Noa. *Mundua Tolosan* zikloa. 20:30ean. Sarrerak agortuta daude.
- **Apirilak 12.** Sehaska. Kresala dantza taldearen dantza ikuskizuna. 20:30ean.
- **Apirilak 18.** Poesia emanaldia. Galtzaundi Euskara Taldeak antolatuta
- **Apirilak 26.** Antigona. Valven taldearen antzerki saioa. 20:30ean.

Zine emanaldiak

- **Apirilak 3.** *El Bosque del luto* filma ikusgai 19:15ean eta 21:45ean.
- **Apirilak 5.** *La escafandra y la mariposa* ikusgai, 17:00etan, 19:30ean eta 22:30ean.
- **Apirilak 6.** *Winkyren zaldia* ikusgai 17:00etan. 19:30ean eta 22:00etan, *No es país para viejos*.
- **Apirilak 7.** 20:30ean, *No es país para viejos* ikusgai 20:30ean.
- **Apirilak 10.** *El asesinato de Jesse James* ikusgai 19:00etan, eta 21:45etan.
- **Apirilak 13.** 17:00etan, *Los Reyes del arte* eskainiko dute. Honez gain, 20:00etan eta 22:00etan, *Paisajes transformados* izango da ikusgai.
- **Apirilak 14.** *Los reyes del arte* eskainiko dute, 20:30ean.
- **Apirilak 17.** *El silencio antes del Bach* izango da ikusgai 19:15ean eta 21:45ean.

Bihar Sortzez Garbia enparantzaren etorkizunaz hitz egiteko bilera izango da

Hirigintza » Udaleko Ingurumen sailak deitu du batzarrera; inguruko bizilagun guztiei hara joateko deia luzatu diete.

ERREDAKZIOA

Sortzez Garbia enparantzaren etorkizuna lantzeko eta eztabaidatzeko bilera egingo dute bihar arratsaldean. Tolosako Udaleko Ingurumen sailak deitutako batza-



Sortzez garbia plazako parkea. HITZA

rra 19:00etan izango da, Zentro soziokulturalan. Udalak dei egiten die bizilagun guztiei saioan parte hartzeko. Bestalde, antolaketa lanak direla eta, joan nahi dutenek 943 65 25 44 telefono zenbakira deitzeko eskatu dute Udaleko ordezkariak.

Bileran ondoko gai hauek jorratuko dira. Alde batetik, Eskolako Agenda 21 proiektuan Tolosako ikastetxe guztiek parte hartzen dute eta berdeguneak eta neska-mutilen aisia aztertu zuten duela

bi ikasturte. Aurtengoan aurreko ekitaldietan landutako gaiak berri-kosten ari dira Udalekoak eta aurrekoetan landu gabe edota zintzilik geratu ziren atalak jorratu ahal izateko.

Bestalde, Udalak plaza hau bezirritzeko aurrekontu-partida sartu du udal-aurrekontuetan eta haur parkearekin lotuta geratuko den gune hau diseinatzerakoan kontuan izango bada ere nerabeak izango direla erabiltzaile nagusi.

Gainera, litxarkerien kontsu-

moaren eraginez sortzen den zinkinkeria dela eta, gogoratu nahi dute Udalekoek, adin honetako neska-mutiek Udalbatzari aurkeztutako dokumentuan aitortu zutela beraien erruz sortzen zela eta konpromisoa hartu zutela ez zinkintzeko eta paperontziak erabiltzeko.

Plaza honen berritze lanak aipatutako arazo honen aurrean ipintzen ditu eta dagoeneko ikastetxe-etan gaia lantzen ari dira. Baina ez dute nahi zinkinkeria arazoaren murgiltzea bakarrik, eta hau baztertu gabe, erabiltzaile potentzial guztien plazari buruzko beharrak eta ekarpenak Udala ordezkari helarazteko aukera landu nahi dute.



L.M.

«Geratzen den partida bakoitza finala bezain garrantzitsua da»

JOSE MANUEL LULUAGA Tolosa CFren entrenatzailea

Tolosa » Alaves B taldearen aurka 0-2 irabazi zuten tolosarrek; Jose Manuel Luluaga da orain tolosarren entrenatzailea.

INIGO TERRADILLOS

Garaipenen beharra zuen zalan-tzarik hirugarren mailako Tolosa futbol taldeak, eta azkenean, herenegun Alaves B taldearen aurkako norgehiagokan lortu zuten. Tolosarrek 0-2 garaitu zituzten arabarra, eta ondorioz, 19. postuan dira sailkapenean, 26 punturekin. Blanco eta Ekhi izan ziren Tolosarentzat golak sartu zituztenak. Egoera zailean dago taldea, baina oraindik puntu asko daude jokoan, eta maila mantentzeko aukera badago. Helburu hori lortzeko, entrenatzaile berria dute orain tolosarrek, Jose Manuel Luluaga, hain zuzen ere. Entrenatzaile berria, baina talde ederki asko ezagutzen duena, lehen ere izana baita Tolosaren entrenatzailea. «Gogotsu» dagoela azaldu du, eta egin beharrekoa astean asteko partidari begiratzea dela dio, «partida guztiak finalak bezala izango baitira».

Azkenean iritsi da garaipena Tolosarentzat.

Bai, eta oso beharrezkoa genuen. Azpimarratzekoa izan zen taldekideen jarrera, oso portaera ona izan baitzuten, eta horixe da, hain zuzen, une honetan behar duguna emaitza onak lortzeko.

Nolako partida izan zen?

Oso ondo aritu ginen defentsan, eta aukerak izan genituenean haiek baliatzen jakin genuen. Jokalariek ederki ulertu zuten pasa den asteko entrenamenduan partida horretan zer zegoen jokoan, eta hori nabaritu zen, oso ondo aritu baitziren.

Berriro ere Tolosa entrenatzen ari zara. Nolatan?

Nik, lana zela-eta, taldea utzi nuen, baina beti jarraitu izan dut Tolosak egin duena. Hala, pasa den astean Tolosa CFtik etorri zitzaizkidan entrenatzaile postuan hasteko eskatuz, eta nik baietz esan nien, daukadan guztia emango nuela taldeari laguntzeko.

Gogotsu hasi zara, beraz.

Bai, izan ere, ez balitz horrela ez nien baiezkorik emango.

Aldaketarik egin al duzu taldean? Gauza handirik ez. Orohar, nire asmoa izan da taldekideak ohartaraztea astean asteko partidek dutela garrantzia, partida bakoitza garrantzitsua dela, final baten pa-

«Berazubiri giro polita dagoela nabaritzea oso garrantzitsua da taldearentzat»

rekoa, eta horretaz gain, izan dezatela portaera, jarrera egokia, izan ere, ez dago zertan amore eman. Oraindik aukera dago maila mantentzeko, puntu asko baitaude jokoan. Dena den, taldeko jokalariek ederki asko ezagutzen naute, hau da, badakite nola egiten dudan lan.

Zaletuei zer eskatuko zenieke?

Guk badakigu hirugarren mailan gaudela, eta normalean ez dela jende asko joaten partidatara animatza. 4-5 partida geratzen zaizkigu etxean liga amaitzerako, eta eskatuko nieke anima daitezela eta joan daitezela Berazubira partida ikustera eta taldea animatza eta babesa ematera. Oso garrantzitsua izango litzateke taldearentzat Berazubiri giro polita dagoela nabaritzea.

Hurrengo partida Eibarren aurka duzue, etxean.

Partida guztiak dira zailak, eta hau ere bai. Beraiek goiko postuetan sartu nahi dute, eta gogor saiatuko dira partida irabazten.

Xabi Fernandez eta Iker Martinez Europako txapeldunak

Ibarra » Mallorcan izan den Europako Bela Txapelketa irabazi dute, pasa den urtean Italian lortutako tituluari eutsiz.

ERREDAKZIOA

Hirugarren aldiz Europako txapeldunak dira Xabi Fernandez ibartarra eta Iker Martinez hondarribiarra herenegun Mallorcan lortutako emaitzari esker.

Mallorcan zazpi egun iraun dituen txapelketan lehenengo egunetik erakutsi dute nagusitasuna euskaldunek. Hala, herenegun izan zen azken lehian, Medal Race izenekoan, zortzigarren postua erdietsi zuten Fernandezek eta Martinezek, eta postu horrekin Europako titulua eskuratu zuten. Azken proba hau Nathan Outteridge eta Ben Austin bikote australiarrek

irabazi zuen, egungo munduko txapeldunak direnak, hain zuzen ere.

Xabi Fernandez ibartarrak azken proba amaitzean tentsio handia izan zela azaldu zuen, «partehartzaile guztiotzat oso garrantzitsua izaten da; gure kasuan, urrea alazilarra eskuratu zen jokoan genuena, baina beste askok gehiago zuten jokoan».

Herenegun lortutakoarekin, beraz, hirugarren Europako Txapelketa eskuratu dute. Pasa den urtean, Marsalan (Italia) lortu zuten, eta 2002an Grimstad-en (Norvegia).

Fernandez eta Martinez 49er modalitatean lehiatuko dira Pekinen jokatu diren Olinpiar Jokietan, baina aurretik, Frantzia, Hyeres-en izango dute hurrengo hitzordua. Bertan, Frantziako Aste Olinpikoan hartuko dute parte, apirilaren 19tik 25era.

Hirugarren garaipena bigarren fasean, Tolosa Aralarrentzat

ERREDAKZIOA

Bigarren fasean ez du porrotik jaso Tolosa Aralar saskibalo taldeak eta sailkapenean erdialdean aurkitzen dira, maila mantentzeko helburuan beste aurrerapauso bat eman eta gero. Azken partidari, larunbatean jokatu arikoan, ATE-Asesores La Salle taldeari 72-54 irabazi zieten tolosarrek.

Partida 15 minutu inguruko atzerapenarekin hasi zen, epaileak berandu iritsi baitziren. Honen eraginez, bi taldeek oso hotz hasi zuten partida, ez baitzekiten epaileak agertuko ziren ala ez. Iritsi zirela ikusi zenean, azken beroketak egin eta partida hasi zen.

Partidak hasiera oso hotza izan zuen, beraz. Etxekoek 6 puntu erdietsi zituzten lehen lau minutuetan; aurkariak, ordea, ez zuten saskiraterik lortu. Baina, laurdenean amaierara gauzak erabat aldatu ziren eta bilbotarrak izan ziren saskiraterik lortu zituzten bakarrak, 0-8ko partzial bat eginetz eta lehen hamar minutuen amaierara 6-8ko markagailuarekin iritsiz.

Bigarren laurdenean gauzak ez ziren asko aldatu. Erasoan finago ibili ziren bi taldeak eta batzuen eta

besteen saskiraterik kanpotarren alde handitzea lortu zuen, atsedena dira bost puntuko errenta kezkagarriarekin iritsiz (21-26).

Erasoari ekin beharra

Jaitsiera ekiditeko aurkari zuzena zela kontuan hartuta, gauzek ezin zuten horrela jarraitu, eta atsedena erasoaren alde apustu egitea erabaki zuten tolosarrek. Eta helburua lortu zuten, izan ere, hirugarren laurdenean, etxekoengan ohikoak ez diren 29 puntu lortu ziren eta azkenekoan, 22. Goaren lana nabarmendu behar da, 27 puntu egin baitzuten.

Garaipen honekin bi puntura urrundu da ATE-Asesores La Salle talde bizkaitarra eta hirur dira sailkapeneko azken postuetan murgilduta dauden taldeak. Jaitsierako laugarren postua aldenetako borrokan bost talde daude berdinduta eta horien artean aurkitzen da Tolosa Aralar. Beste lau taldeetako bat da Promociones Le-garzia taldea, aste honetako tolosarren aurkaria. Lizarran izango da partida, larunbatean, 17:30ean.

Bestalde, partidaren atsedendian egin zen zozketan, sarritutako zenbakia 235a izan zen.

Laburrak

Bordondantza ikastaroa, etzi, Usabal kirolegian

TOLOSA » Udaberri dantza taldekoak aste honetan hasiko dira bordondantza ikastaroarekin. Etzi hasiko da ikastaroa, 20:30ean, Usabal kirolegian.

Tolosa Kup antolatzeko bilera, etzi, Kultur Etxean

TOLOSA » Aurten Tolosa Kup txapelketa antolatzeko helburuz, bilera egingo dute etzi, 18:00etan, Kultur Etxean. Joxelu Andueza gazteria zinegotzia eta Nerea Cereceda gazteria teknikaria izango dira bileran, eta bertara agertzeko deia luzatu nahi diete parte hartu nahi duten guztxie.

Oroimenaren bulegoa zabalik Aranburu jauregian

TOLOSA » Gerra Zibilean errepresioa jasan zuten biktimen eta familiaren informazioa jasotzeko bulegoa zabalik dago Aranburu jauregian, Aranzadi elkarteak antolatuta. Gaur 09:30etik 13:00etara izango da, eta etzi 09:30etik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara.

T Telefonoak

Larrialdiak. ((112))

OSASUNA.

Alegialdea. Osasun z.: 943 653212

Anoeta-Alkiza-Hernalde.

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 943 692423

Baliarrain. Medikua: 943 889003

Berastegi-Elduain.

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134

Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta. Medikua: 943 653329

Irura. Osasun zentroa: 943 690720

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Orendain. Medikua: 943 655595

Orexa. Medikua: 943 682228

Tolosa.

Anbulatorioa, larrialdia: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Gernikako arbola: 943 006900

Amarozko dispen: 943 672637

Asuncion klinika: 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

DYA: 943 672536

Gurutze Gorria: 943 674888

Villabona. Arbulat.: 943 006970

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 943 693930

GARRAIOAK.

Renfe: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosalde bus: 943 650621

Leitzarar autob. 948 221015

Taxia: 943 670420

Taxia (Leitza): 608 873016

BESTERIK.

Ertzaintza: 943 538820

Tolosa-Udaltzaingoa: 943 675858

Tolargi: 943 650016

Iurramendi egoitza: 943 670325

Tolosa gasa: 943 675320



Mugagakoa izan zen mendizaleek igaro zuten lehenengo kontrol gunea. N. LATABURU

Orain arteko parte-hartze handiena izan da Aizkardik antolatutako bi ibilaldietan



Ipuliño mendira igo ziren, besteak beste, Aizkardiren ibilaldian. N. LATABURU

Villabona » Ibilaldi luzean eta motzean guztira 1.043 mendizalek hartu zuten parte eta horietatik 892k bukatu zuten.

IMANOL GARCIA

Aizkardi mendi elkarteak antolatutako 40. Ibilaldian inoiz baino parte-hartzaile gehiago izan ziren. 1.218 mendizalek izena eman zuten, baina guztira, ibilaldi luzea eta motza kontuan hartuta, 1.043 aterra ziren elkarteko egoitzaren ondotik. Hauetatik luzea egiten hasi zirenak 653 izan ziren eta motza hasi zirenak 390. Guztira 892k bukatu zuten eginbeharreko bidea. Mendizale kopuru handiena gipuzkoarrena izan zen, ondoren bizkaitarra, arabarra eta nafarra.

Antolatzaileak «oso gustura» agertu dira emaitzarekin. «Espero genuen jende asko etorriko zela», azaldu dute. «Aurten XIV Orduak egingo dira eta horretarako prestatzeko erabiltzen dute askok. Mendizale horiek guztiak hartzeko prestatuta geunden».

Mendizaleak ere gustura

Kezka handienetakoa mendizaleak lehenbailehen ateratzea zen eta Aizkardikoek lortu zuten, ordu laurden batean partaide guztiak abiatu baitziren. Antolatzaileak ere gustura daude, parte-hartzaileek ibilbidea ondo antolatuta eta markatuta zegoela esan dutelako.

Ibilaldi luzean gizonekoetan azkarrenak 5 ordu eta 47 minututan egin zuen eta emakumezkoetan 6 ordutan. Denbora gehiena eman zutenak bai gizonekoetan bai emakumezkoetan 12 ordu eta 43 minutuko egin zuten.

Lokaztuta

Ibilaldia eguraldi onarekin hasi bazen ere, eguna aurrera joan ahala euria eta kazkabarra ere azaldu ziren. Horrek eta hainbat mendizale leku berdinetik pasatzeak bidea lokaztu zuen eta, beraz, Villabonara iritsi zirenen arropak ere bai. Batez ere aldapa beheak izan ziren arriskutsuak, Errozpekoa eta Loatzoakoa esaterako. «Horrek gehiago nekarazten du eta tentsioa ere sortzen du», azaldu dute antolatzaileak. Ibilaldia bukatu ez zuten gehienak Berrobin gelditu ziren.

Erreskate neketsu bat ere izan zen. Gizoneko bat Errozpetik esku-ohetean jaitsi behar izan zuten, tartean suhiltzailek. Mendizaleak min hartu zuen belauean eta bertaraino noranaiko ibilgailurik ez zenez iristen eta lainoagatik helikopteroa ezin izan zuelako hegan egin, esku-ohen jaitsi behar izan zuten Gaztelu aldera.

Bestalde, ohi bezala, arrakasta handia izan zuen antolatzaileen egoitzaren ondoan egiten den ekitaldi amaierako zozketak. 60 bat produktu zozketatu ziren bertan. Bere aldetik, Aizkardikoek esker-rak luzatu dituzte ibilaldia antolatzeko lagundu duten guztiei.

Asteasuko Usarrabik kantu jira antolatu du larunbaterako

ERREDAKZIOA

Kantu jira antolatu du larunbat honetarako Asteasuko Usarrabi kantu abesbatzak. 12:00etan plazan elkartu ondoren, kantu herrikoiak abestuko dituzte kalez kale eta «umore onean», antolatzaileek azaldu dutenez. Oraingo hau hirugarren aldian izango da antolatzen dela.

Usarrabikoek nahi duten guztiei gonbidatzen diete bertara. Inguruko herrietatik ere bilduko da jendea, Zizurkiletik eta Alkizatik, esaterako, eta baita Donostiatik ere.

Barreterapia ikastaroa antolatu du Hutsunea betez elkarteak

ERREDAKZIOA

Hutsunea betez elkarteak Udalaren laguntzarekin barreterapia ikastaroa antolatu du igande honetarako, 10:00etatik 14:00etara, Kultur Etxean. Emakumezkoek zein gizonzkoek zein zuzenduta dago eta billabonatarrek izango dute lehentasuna. Izena eman nahi dutenek 943 69 10 56 eta 943 57 95 99 zenbakietara dei dezakete.

Villabonako Udalbatzak ezohiko osoko bilkura egingo du bihar

ERREDAKZIOA

Ezohiko osoko bilkurara deitu dute Villabonako udaletxean biharko, 20:00etan. Ondorengoa izango da gai zerrenda: aurreko bi bilkurei dagozkien aktak onartzeko proposamena; Arrasaten martxoaren 7an izan zen atentatuari buruz EAJ-PNV eta EAE-ANV udal taldeek aurkeztutako mozioak; Villabonako arau subsidiarioetako La Salvadora areako babes ofizialeko etxebizitzaren eskabideak formalizatze baldintzen plegua onartzeko proposamena; eta azkenik, Villabonako udal etxebizitza tasatua arautzeko udal ordenantza onartzeko proposamena.



mate nau
ez nau mate

villabonako
amodiozko
gutunen
lehiaketa

2 0 0 8

Lanak aurkezteko azken eguna 2008ko maiatzaren 5a izango da
Oinarriak: Villabonako Euskara Zerbitzuan
943693501 – euskara@villabona.net

Villabonako Euskara Zerbitzua
euskara gona gunea
egitezu hodiak!

B Blogteka 

Ikastola Radio Euskadiren urteurrenean

Radio Euskadik 25 urte betetzen dituela eta, saio berezi bat egin dute gaur goizean *Boulevard* saioan, eta bertan Laskorain Ikastolak parte hartu du.

Irratiaren 25. urteurrena zela eta, Euskal Herriak azken 25 urte hauetan bizi izan dituen aldaketan berri eman nahi izan dute, eta horretarako Euskal Herriko 7 elkarte edo talde elkarrizketatu dituzte, eta horien artean gure Ikastola izan da aukeratua.

Azken 25 urteetan Laskorain Ikastolak eta Ikastola mugimendua orokorrean bizi izan dituen aldaketan berri eman dugu, eta murgilduta gauden zenbait proiektuen inguruan hitz egin dugu.

Laskorain ikastola

<http://www.tolosaldeko-hitza.info/bl/gak/laskorain>

ONA txartel berria tramitatzeko aukera, egunero

ERREDAKZIOA

Anoetan, ONA erabilera anitzeko osasun txartel berria tramitatzeko aukera dago doan astelehenean ostegunera 16:00etatik 20:00etara eta ostiralean 11:00etatik 13:00a arte. Jakitera eman dutenez, edozein pertsonak bidera dezake txartela, anoetarra izan ez arren.

Haur Liburuaren Nazioarteko Egunaren harira, hainbat ekitaldi

Tolosa » Bihar Errota Haur Liburutegiak ipuin kontaketa berezia prestatu du, 18:00etan 5-10 urte bitarteko gaztetxoentzat.

ERREDAKZIOA

Bihar ospatuko da Haur Liburuaren Nazioarteko Eguna. Tolosako Errota Haur Liburutegiak ere ospakizunarekin bat egin nahi izan du eta hainbat ekitaldi antolatu ditu egun honetarako.

Hala, bihar, arratsaldeko 18:00etatik aurrera, 5-10 urte bitarteko gaztetxoentzat zuzenduriko ipuin kontaketa berezia izango da, Judith Huegun kontu kontalariaren eskutik. Hain zuzen, *Mari Titare eta Tailandiako ipuin* bat saioa eskainiko du.

Piruleta opari

Sorpresentzako tartea ere izango da biharkoan, izan ere, liburutegian dagoen libururen bat maileguan eramaten duten haurrek piruleta bat jasoko dute opari. Eki- men berbera hilaren 23an errepikatuko dute, asteazkenarekin. Aitzakiarik ez zaie faltako beraz literaturaren munduan murgiltzeko.

Ekintza gehiago ere antolatu dituzte Errota Haur Liburutegiko

arduradunek. Hain zuzen ere, *Mari Titare* ipuinari buruzko erakusketa antolatu dute bihar hasi eta hilaren 23ra arte, Haur Liburutegian bertan.

'Doluaren basoa' filma etzi zine-forum saioan

Tolosa » Ohi bezala, bi saio eskainiko dituzte, lehenengoa 19:15ean eta 21:45ean bigarrena.

ERREDAKZIOA

Zine-forumaren saio berria izango da etzi, osteguna. Aste honetan Naomi Kawase zuzendariaren

Doluaren basoa filma aukeratu dute, eta 19:15ean eta 21:45ean izango dira saioak.

Filmak Cannes 2007ko epaimahaiaren sari nagusia jasozuen; Shigeki emakumearen istorioa kontatzen du, semea galdu eta lur jota dagoena.

Zuzendariaren lanak sentsibilitatez eta errikiz beteta dagoela diote adituek, ez du presarik aparteko gertaeren berri emateko.



Euskal Eskola Publikoa

Urtez urte hazten dira. Baita euren eskola ere.

- Etorkizunerako prestakuntza
- Ezagutzia teknologikoa
- Bizkaitasuna
- Balere integratzaileak

Aurrematrikulak: Martxoaren 31tik apirilaren 11ra

Euskal Eskola Publikoa: Habetu egun du haurkideetan, berrikitzen eta kaltetan

EUSKO JAURLANITZA
GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDAD E INVESTIGACIÓN



NEURE BURUA NIK NEUK GIDATZEKO PREST!

WWW.MONDRAGON.EDU/PREST

MON DRAGON UN BERTS TATEA

2008

Altuna I.a Master Patxaran Baines txapelketatik kanpo geratu da

Erremontea » Sarasuak bere azken partida jokatu zuen eta ezin izan zuen irabazi, 27-40 bukatuz, baina halere, «pozik» dago.

NEREA URBIZU

Ez da posible izan: asteburu honetan Altuna I-Etxabe bikotea Huar-teko Euskal Jai Berri pilotalekuan izan zen Patxaran Baines txapelketako finalerdia jokatzeko eta bertan, galdu egin zuen 25-40. Beraz, ez da Altuna I.a amaizterria finaleran izango.

Honenbestez, altunatarrek ez dira dagoeneko Patxaran Baines txapelketan gehiago ariko aurten.

Altuna I-Etxabe «bikote fina»

Altuna I-Etxabe joaneko partidan irabazi egin zuten bi tantoko aldea galtzaileei ateraz. Beraz, haien aldekoa zegoen markagailua, aldea txikia bazen ere. Partida hau Izaban jokatu zuten, pilotaleku motzean, beraz.

Altuna I.a eta Etxabe ziren faboritoak, ligaxka osoan zehar erakutsi duten joko trinkoa kontuan izan



Gorriz, Juaristi pilotari emateko prest, eta atzean eskuinean, Altuna I.a, joaneko finalerdiko partidan. JOSEBA ZABALZA

nik. Zortzi bikotek hartu dute parte txapelketan, eta artean Zeberio II.a eta Altuna II.a ere izan dira.

Izena hartu duen txapelketa

Master Patxaran Baines lehen aldiz joan den urtean egin zen. Honen berezitasunen artean frontoi luzeetan eta motzetan jokatzeko dago (Euskal Herrian frontoi motz gehiago dago).

Txapelketa honen erantzuna

oso ona izan zen. Alde batetik, erremontezaleek asko gozatu zuten frontoietan eta bestetik, pilotaleku motzetan erremontek duen ikusizuna areagotu egin zen. Modu honetan, erremontea ezagutzera gehiago ematen da, eta gainera, joko ikusgarriagoa da (pilota abiadura handiagoa da pilotaleku txikietan jokatzeko orduan. Frontoi hauetan aritzeko egokitu-tako materialarekin jokatzeko da).

II. Master Patxaran Baines txapelketan erremonte profesionalerako pilotaririk onenak aritzen dira, hala nola, Patxi Zeberio II.a, Altuna anaiak edo Koteto Ezkurra.

Sarasua erretiratu egin zen

Joan den asteburu honetan ere, Igor Sarasua asteasuarraren profesional mailako azken partida izan zen Galarretan (Hernani). Bertan, Lizasorekin osatu zuen bi-

kotea Altuna II-Etxaberen aurka aritzeko. Partida ez zen Sarasuaren alde joan, eta 40-27 galdu zuen.

Partida Etxabek bideratu zuen

Etxabe aurkari atzelaria «bikain» aritu zen eta «min handia egin zuen». Baina Sarasuak ikusleentzat bi tanto eder egin zituen eta jendeak «asko txalotu zuen». «Ez nuen irabazi, baina pozik nago, partida gogorra zelako eta jende asko etorri da ni ikustera: egun polita eta hunkigarria izan zen». Urduri egon zela ere adierazi zuen.

Erremontista profesionala 1995. urtean izandakoak Hernanin debutatu zuen (maiazaren 27an). Aurrelaria da eta jakitunek «azkarrak eta aukerak aprobeztatzen ondo dakiena» izan da. Gaur egun 36 urte ditu, eta berak adierazi bezala «ez da trauma handia izan uztea».

Azken asteetan bizkarreko mina zela eta, ez du jokatu ahal izan, baina asteburuko partidan ez zuen halako zantzurik izan.

Orain ere erremontea

Hemendik aurrera, Sarasuak erremontea beste modu batean biziko du: orain arte bezala monitorea izango da asteen hirutan, eta saskigile ere izango da. Orain arte ez da horretan aritu eta «eskulantzat eta lan politizatza» hartzen du.

Galarreta-Euskal Jai enpresarekin jarraituko du, beraz.

Ohiko bilkuran, kultura arloko diru laguntzak

Amezketak » Etzi 20:30ean izango da udaletxean. Ondoren, batzordeen bileretako informazioa emango da.

ERREDAKZIOA

Etzi, hilaren 3an 20:30ean, Amezketako udaletxeke pleno arretan egindako ohiko bilkura izango da, eta Jexus Iñurrirta alkateak bertan azaltzeko udalkideei gonbitea luzatu die. Egun honetako gairik garrantzitsuenak kultura arloko diru laguntzak erabakitzea izango da.

Bestela, besteak beste, ondoren zehazten diren gaiak aztertuko di-

tuzte: 2008ko otsailaren 25ean eginiko Ez Ohiko Bilkuraren Akta Agiriaren onarpena, alkatetzaren ebazpenen berri ematea, edota batzordeen informazioa. Bukatzeko, galderak eta erreguak egiteko tartea izango da.

Batzordeen informazioa

Joan den asteen zehar, udaletxeke batzordeak bildu egin dira eta hainbat erabaki eta gai izan zituzten mintzagai: tartean, Amezketak UEMAn sartzearen ideia. Ostegunean bertan batzorde guztien informazioa eta erabakiak emango dira ezagutzera. Beraz, herritarren intereserako izan daitekeen, herritarrek ere joan daitezke bertara.

Astelehenean oinen osasunari buruzko hitzaldia izango da Ikaztegiatan

ERREDAKZIOA

Hilaren 7an, astelehenean, 17:00etan, Kutxako Gizarte Ekin-tzak antolatutako honako hitzaldi hau izango da Ikaztegiako Udako Liburutegian: *Oinak zaintzea ongizate osoa lortzeko. Pentsa dezagun hankekin.*

Hitzaldi hau adineko pertsonei dago zuzenduta, eta gai hauek jorrratuko dituzte, besteen artean: oinaren hezur-egitura, patologiarik ohikoak, oinen oinarriko zainketa, pertsona diabetikoaren oina, edota prebentzioa. Beraz, interesa duten orok badu aukera ikasteko eta gomendioak jasotzeko.

@ Begiradak. Begiradak atal berrian hainbat gai lantzen dira. Honen helburua, gai zehatz bati lotuta Hitzak idatzitako albiste biltuma osatzea da. Oraingoz, idazleak, musika taldeak, alkateei elkarrizketak, eta bilduma berri bat: Soka motzean elkarrizketak. Kaleko jende arruntari egindako galdera bereziak eta erantzunak, ezin hobek.

www.tolosaldekohitza.info

Zortzi herrien arteko VI. Mendi Ibilaldirako prest

Mendia » Alkizatik abiatuko da; bi ibilaldi izango dira, luzea 49 km-koa eta motza 25koa. Izena jada eman daiteke.

ERREDAKZIOA

Aurten VI. Mendi Ibilaldia antolatu du Erniozaleak Kultur Elkarteak. Ernio mendia zortzi herri inguratzen dute, eta helburua hori da: inguru hori ezagutzera ematea. Maiatzaren 11n izango da, igandean, eta egunean zehar 49 kilometro inguru egin behar dira, beti ere ibilbide luzea aukeratzuz gero. Motzak 25 kilometro ditu. Ibilbide luzea eginez gero igaroko dituzten herriak Alkiza, Larraul, Asteasu, Aia, Errezil, Bidegoian, Albiztur eta Hernialde dira.

Ibilaldi luze 43 kilometro garaierako herri bideetatik doaz, eta hormigoian edo asfaltoan 7 kilometro inguru.

Ramon Lasaren omenez

Aurten Erniope Elkarteok Ramon Lasa Albizturko alkate zena omendu nahi izan dute ibilaldira. Elkarteok kidea zen Ramon Lasa.

Hainbat zeregin urtean zehar Ernio Kultur Elkarteak hainbat ekitaldi egin izan ditu, hala nola, borda eta gurutzearen berreraiketa, erromeriak, gurutzearen eraikitzailei omenaldia eta abar.

400 lagun inguruk egiten dute urtero ibilaldi hau: antolakuntza aldetik lana eskatzen du, baina urte batzuk badaramatzate mendi ibilaldi hau prestatzen eta eskarmen-tu handikoak dira.

» DATU BATZUK

- **Ibilaldiak.** Luzea eta motza, Ernio inguruan.
- **Iraupena.** Luzeak 11 ordu; motzak 5 eta erdi.
- **Distantzia.** 48,6 km / 25 km.
- **Gorabehera.** Igoeran 2.400 m / 2.000 m.
- **Irteera orduak.** 06:00etan / 08:00etan.
- **Irteera.** Alkizatik Larraul aldera / Alkizatik Ernio aldera.
- **Izen-ematea.** 943 69 02 35 telefonoan edo Alkizako plazan ibilaldirako egunean bertan, 05:00etan.
- **Baldintza batzuk.** 16 urte baino gehiago izan behar da; txartel bana emango dute irteeran, kontrol postuetan zigitatzeko.

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Etxea.** Tolosa erdian bi logelako etxea salgai. Egoera onean, oso merkea. 665 70 86 35.

GALDUTAKOAK

■ **Muxala.** Muxal bat galdu da Uli

aldean. Zerbait dakienak, mesedei, dei dezala: 653 71 12 59.

BESTELAKOAK

■ **Txakurkumea.** Border Collie arrazako txakurkume emea oparitzen da. 658 70 59 12 (Xabo).

Aurrera taldekoak «oso gustura» asteburuko emaitzarekin

Futbola » Hiru partida besterik ez dira gelditzen aurtengo denboraldia amaitzeko, azkenekoa, apirilaren 20ean izanen da.

NAIARA GARZIA

Aurrerak igandean 3 puntuak eskuratzerik izan ez zuen arren, Leitzako futbolariak ez ziren esku hutsik gelditu, berdinketa lortu baitzuten, beraz, puntu bat eskuratu zuten. Partida Arkixkilen jokatu zuten eta leitzarrak eta lakuntzarrak lehiatu ziren bertan.

Eneko Andueza Aurrerako jo-

kalariak azaldu duenez, «oso gustura» gelditu ziren emaitzarekin, aurkaria Lakuntzako Lagun Artea taldea izan zela kontutan hartuta, izan ere, asteburu honetako emaitzak kontutan hartu gabe, hirugarrenak baitoaz sailkapen orokorrean.

Partidaren nondik norakoak

«Lehenengo zatian 2-0 irabazten hasi ginen», dio Eneko Anduezak. «Jon Arangoak sartu zituen 2 golak, baina atsedenaldira iritsi baino lehen, Lakuntzakoek gol bat sartu ziguten». Gauzak horrela, markagailua 2-1 zegoela iritsi ziren atsedenaldira.



Aurrerako jokalaria entrenamendu batean, Arkixkilen. NAIARA GARZIA

Bigarren zatian berdinketa iritsi zen, partida amaitzeko 20 minutu inguru falta zirenean. «Bigarren zatia bukaeran hiruzpalau aukera izan genituen beste golen bat sartu eta partida irabazteko, baina ez genuen besterik sartu».

Aurkari gogorra

Lagun Artea lehenengo postuetan doan taldea da eta asteburu honetako emaitzak kontutan hartu gabe, hirugarren doa. «Beraientzat partida hau oso garrantzitsua zen», dio Anduezak, «asko zeukaten jokoa, hirugarren mailarazartzeko zorian baitaude. Guretat, berriz, ez zen hain partida garrantzitsua, gure helburuak bete baititugu. Denboraldia hasi zenean, gure helburua mailari eustea zen, eta zentzu horretan urtarrierako edo argi geneukan mailaz jaitsiko ez ginela. Hortik aurrera gure helburua denboraldia ahalik eta hobekien bukatzea da».

Hiru partida besterik ez zaizkie gelditzen leitzarrei denboraldia amaitzeko, San Cristobal taldearen aurkakoa, Pamplonaren aurkakoa eta Garesen aurkakoa.



Punta-puntako kirolariak

BARAKALDOKO DUATLOIA • Igandean Barakaldoko Duatloian Leire Baraibar aresoarrak eta Julen Sagastibelza leitzarrak parte hartu zuten eta bakoitzak bere kategorian emaitza ezin hobekak lortu zituen. Baraiba-

rrek nesken kategorian hartu zuen parte eta sailkapen orokorrean bigarren postua lortu zuen. Julen Goikoe-txeak ere emaitza paregabea lortu zuen, junior kategorian parte hartu eta lehenengo gelditu baitzen. HITZA



Irudimena landuz, euritik babestuz

LEITZA • Ludoteka zabalik dagoen bigarren urtea da hau eta aurten, lehenengo urtean bezalaxe, astelehenero eta ostiralero udaletxeko lehenengo solairuan 3 eta 5 urte bitarteko umeak elkartzen dira. Aurten ludotekan parte hartzen duen ume kopuruak gora egin du eta orotara 25 dira (denak elkartzen direnean), atzo bezala, arratsaldea eskulanak egiten, ipuinak entzuten edo beste zerbait egiten igarotzen duten umeak, Nerea Zabaleta eta Amaia Agirre begiraleen laguntzarekin. NAIARA GARZIA



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri
eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldecohitzza.info / Tel.: 943-65 56 95



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta: 687 410 032. anoeta@tolosaldeko hitza.info.
Ibarra: 687 410 034. ibarra@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta
Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezket, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

- **Tolosa.** Ostegunetan izango dira sanjoanetako Bordondantzarako entseguak 20:30etik aurrera Usabal kiroldegian.
- **Anoeta.** 2008ko jaiak iragartzeko kartela egiteko lehiaketa. Lanak udaletxean aurkeztu behar dira. Azken eguna, apirilaren 18a.
- **Tolosa.** Gerra Zibilean erreprosiario jasan zuten biktimen eta familiaren informazioa jasotzeko bulego Aranburun, astelehenean 16:00etatik 20:00etara, asteartean 09:30etik 13:00etara eta ostegunetan 09:30etik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara.
- **Ibarra.** Bizi Nahi jubilatuta eta erretiratu elkarteak Karrantzara (Bizkaia) txangoa antolatuta du apirilaren 10erako. Izen-ematea, bulegoko ordutegian NAN eta Kutzako urrezko txartela aurkeztuz.
- **Ibarra.** Hilaren 12an egingo den II. Ziklo indoor maratoirako izen-ematea, Belabieta kiroldegian edo telefonoz (943 671544) goizez. 20 euro ordaindu behar da.

Erakusketa

- **Tolosa.** Joseba Antxustegietxartek azken 11 urte hauetan Gal-tzaundi aldizkarian argitaratu dituen komikien erakusketa Kultur Etxean Aste egunean, 17:00etatik 20:00etara eta larunbat nahiz igandetan, 10:30etik 13:30era.
- **Alegia.** Patxi Tena urtero Kubara joaten da; bertatik, arteak ikasten dituzten ikasleen lanak ekartzen ditu: asmoa haiei laguntzea da.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 670915.
- **Leitza.** Campos, M.Z. Elbarren, 52. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneri eta iritzien erantzunkizunik.

Itsasoak utzitakoak...



Mikel Altuna Mendizabal (Lizartza). Mendiek paisaia eder-
ra osatzen dute baina itsasoaren
edertasunak ere ez dio enbidiarik.
Horren bi adibide heldu zaizkigu
lehiaketara. Lehenengoa Mikel
Altuna lizartzarrik bidali digu Tar-
rifatik eta hauxe kontatu digu:
«Tarifako hondartzan ateratxo
argazkia bidaltzen dizuet, martxo-
aren 26an bidaltuko».



Julen Martin (Tolosa). Hau da itsasoaren edertasunaren bigarren adibidea. «Gironako Tossa de Mar herrian gaztelura bidean ikusten den Itsaslabarra», azaldu digu argazkia bidaltzearekin batera Julen Martin tolosarrak.

hitza k 5 urte

h h **JAIALDIA** h h
Apirilak 5 • Larunbata

hitza
TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

17:00:
Tolosako Beotibarren
Xurdirin
kontzertua.
Sarrerak:
harpidedunentzat 3 euro,
besteentzat 5 euro.



18:00:

Mus Txapelketa azkarra

Tolosako Oargi Elkartearen. Irabazleentzat bazkaria edo afaria Tolosako Isastegi sagardotegian.

Parte hartzeko, 17:30ean Oargin bertan izena eman beharko da eta bikote bakoitzak 10 euro ordaindu beharko ditu.

21:00:

Bertso afaria

Tolosako Oargi Elkartearen,
Amaia Agirre, Jesus Mari Irazu
eta Diego Riaño bertsolariekin.

Txartelak salgai Zizurkilgo Aurreran. Tolosako Raku eta Denak eta Leitza Torrea tabernetan. Harpidedunentzat 20 euro, besteentzat 25 euro.

Afalostean poteo herrikoia, trikitixaz lagundurik.

txokoa **h**

emanaldirako
2 sarrera pare
zozketan, deitu eta eskuratu

Soledad Ruz...


FLAMENKOA

Ostirala, apirilak 4 • 20:30ean
Tolosako Leidorren



4 sarrera pare
zozketan, deitu eta eskuratu

hitza k 5 urte



Bertso afaria

Amaia Agirre, Jesus Mari Irazu
eta Diego Riaño bertsolariekin.

Larunbata, apirilak 5 • 21:00etan
Tolosako Oargi Elkartearen

HITZAren harpidedunentzat abantailak

Parte hartzeko, deitu goizez zenbaki honetara: **943 65 56 95**